Ingurumen Adierazpena 2016eko ekitaldia

Declaración Ambiental Ejercicio 2016

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Ingurumen Adierazpena
2016eko ekitaldia

Declaración Ambiental
Ejercicio 2016

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Patzuergoko presidentearen gutuna
Carta del presidente

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren lehen ingurumen-adierazpena duzu esku artean, 2016ko ekitaldiari dagokiona. Informaziorako dokumentu bat da, argitalpen jarraia izateko asmoarekin, gure ingurumen-jokabidea modu laburtuan erakusteko.

Ingurumena babestea funtsezko ardatza da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren estrategian. Horren oinarrizko alderdi gisa, Ingurumena Kudeatzeko Sistema ezartzea eta ISO 14001:2004 arauaren arabera ziurtatzea erabaki zuen Partzuergoak 2009. urtean. Sistema hori gure erreferentzia-markoa da, gure erakundeko gako-prozesu eta mailetan ingurumenaren aldagaia ezartzeko. Marko honen barruan gauzatzen ditugun ekintza guztien amaierako helburua da gure ingurumen-jokabidea etengabe hobetzea.

Gizarteak gero eta interes handiagoa du guztion oinarrizko espazioa partekatzen duten eta harremana duten jarduera ekonomikoen eta erakundeen ingurumen-jardunaren berri izateko. Horren jakitun, adierazpen hau komunikazio eta gardentasunerako tresna da, alde interesdun guztiei dagokienez.

Adierazpenak hainbat adierazleren bilakaerari buruzko informazio kuantitatiboa jasotzen du; izan ere, adierazle horien bitartez, gure jardueraren ingurumen-alderdiak baloratzen ditugu urtero. Era berean, 2016an betetzea proposatu genuen helburu eta xedeei dagokienez lortutako emaitzen laburpena ere jasotzen du. Halaber, 2017rako helburu eta xede berriak ere jasotzen dira.

Prestatu dugun lehenengo ingurumen-adierazpena zure interesekoa izango delakoan, zabalik gaude etorkizunean hori hobetzen lagunduko duen edozein iradokizun jasotzeko. Har ezazu gure agurrik zintzoena.

Tienes en tus manos la Declaración ambiental del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, correspondiente al ejercicio 2016. Se trata de un documento informativo que pretende mostrar de manera sintética nuestro comportamiento ambiental.

Como parte esencial de su estrategia, de la que la protección del medio ambiente es un pilar fundamental, el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia decidió en 2009 implantar un Sistema de Gestión Ambiental y certificarlo según la norma ISO 14001:2004. Dicho sistema es el marco de referencia que utilizamos para integrar la variable ambiental en todos los procesos clave y niveles de nuestra organización. El fin último de todas las acciones que llevamos a cabo dentro de este marco es la mejora continua de nuestro comportamiento ambiental.

Conscientes del cada vez mayor interés de la sociedad por conocer el desempeño ambiental de las actividades económicas y organizaciones que comparten su espacio vital y con las que se relacionan, esta Declaración surge como un nuevo instrumento de comunicación y transparencia hacia todas nuestras partes interesadas.

La Declaración incluye información cuantitativa sobre la evolución de una serie de indicadores, mediante los que evaluamos anualmente los aspectos ambientales de nuestra actividad, así como un resumen de los resultados obtenidos respecto a los objetivos y metas ambientales que nos planteamos cumplir en 2016. Se presentan, así mismo, los nuevos objetivos y metas para el año 2017.

Esperando que nuestra declaración ambiental resulte de tu interés y estando abiertos a cualquier sugerencia que nos permita mejorarla en ediciones futuras, recibe un cordial saludo.

Ricardo Barkala Zumelzu
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko presidentea
Presidente del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

07
1. Nor gara
Quienes somos

09
1.1 Gure zerbitzuak
Nuestros servicios

12
1.2 Antolamendu egitura
Estructura organizativa

13
1.3 Harremanak kideko beste erakunde batzuekin
Relación con otras organizaciones afines

15
1.4 Instalazioak eta ekoizpen prozesuak
Instalaciones y procesos productivos

24
1.5 Ingurumen kudeaketaren sistema
Sistema de Gestión Ambiental

27
2. Ingurumenaren alderdiak
Aspectos ambientales

33
3. Ingurumenaren alorreko helburuak eta ekintzak
Objetivos y acciones ambientales

34
3.1 2016an betetako helburu eta ekintzen laburpena
Resumen de objetivos y acciones cumplidas 2016

38 3.2 2017. urteko proposatutako helburuak eta ekintzak
Objetivos y acciones propuestas para 2017

45 **4.** **Ingurumenarekiko jokabidea**
Comportamiento ambiental

49 4.1 Eraginkortasun energetikoa
Eficiencia energética

50 4.2 Eraginkortasun materialen kontsumoan
Eficiencia en el consumo de materiales

53 4.3 Uraren kontsumoa
Consumo de agua

54 4.4 Araztutako hondakinen isurketak
Vertidos de aguas residuales depuradas

56 4.5 Hondakinak
Residuos

60 4.6 Isurketak atmosferara
Emisiones a la atmófera

65 4.7 Biodibertsitatea
Biodiversidad

67 4.8 Kultura ondarea
Patrimonio cultural

69 **5** **Ingurumenarekiko jokabideari lotutako beste faktore batzuk**
Otros factores relativos al comportamiento mediambiental

73 **6** **Aplikatu beharreko ingurumen legeria**
Legislación ambiental aplicable

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia



1

Nor gara

Quiénes somos

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (aurrerantzean BBUP) erakunde publiko bat da, milioi bat biztanleren baino gehiagoren hondakin uren saneamenduaz eta edateko uraren hornikuntzaz arduratzen dena; hots, zerbitzua ematen die Bizkaiko biztanleen % 92ri eta Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren % 48ri, gutxi gorabehera.

Izan ere, Partzuergoari dagokion lurralde eremuan daude Bizkaiko Lurralde Historikoko hiri- eta industria-kontzentrazio handieneko eremuak: 80 udalerrik osatzen dute; gainera, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza ere bertan kokatzen dira.

El Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia (en adelante CABB) es la entidad pública responsable del abastecimiento de agua potable y del saneamiento de las aguas residuales de más de un millón de habitantes, que representan aproximadamente, el 92% de la población de Bizkaia y el 48% de la de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su ámbito territorial se encuentran las zonas de mayor concentración urbana e industrial del Territorio Histórico de Bizkaia, estando integrado por 80 municipios, además de la Diputación Foral de Bizkaia y el Gobierno Vasco.

Undurraga urtegia • Embalse de Undurraga

1.1 Gure zerbitzuak
Nuestros servicios

BBUPek, bere jarduera eremuan, eskumen hauek betetzen ditu:

- **Lehen mailako sarearen ur hornikuntza.** Zeregin horren barruan honako jarduera hauek sartzen dira: urak bildu eta azaleratzea, biltegiratzea, garraiatzea, tratatzea, eta amaierako erabiltzaile handiengana edo udal banaketa-sareko ur biltegietara eramatea.

- **Lehen mailako sarearen saneamendua.** Horretan sartzen dira kolektore eta hodi-biltzaile orokorrak (udal estolderia hondakin uren araztegiekin lotzen dituzte), araztegiak (hondakinak tratatzeko eta balorizatzeko erantsitako instalazio guztiak barne) eta hustubideak (ur araztua ur ingurune hartzailera itzultzen dute).

- **Industriako isurketen kontrola.** Horren barruan sartzen dira hondakin uren isurketen baimena, jarraipena, kontrola eta ikuskaritza, bai saneamenduko lehen mailako sarera bai estolderiara egiten direnena, baita sortzen diren arau hausteak zigortzeko gaitasuna ere, gehiegizko isurketak amaieraraztea eta dagokion uraren hornikuntza zerbitzua eteteko gaitasuna ere.

En el marco de su actividad, el CABB ejerce las siguientes competencias:

- **Abastecimiento de agua en red primaria**. Comprende las funciones de captación o alumbramiento, embalse, transporte, tratamiento y conducción hasta grandes usuarios finales o hasta los depósitos de cabecera de la red municipal de distribución.

- **Saneamiento en red primaria.** Comprende los colectores e interceptores generales (que conectan el alcantarillado municipal con las estaciones depuradoras de aguas residuales), las estaciones depuradoras (con todas sus instalaciones anejas de tratamiento y valorización de residuos), y los emisarios (que devuelven el agua depurada al medio acuático receptor).

- **Control de vertidos industriales**. Comprende la autorización, seguimiento, control e inspección de los vertidos de aguas residuales, tanto a la red primaria de saneamiento como a la de alcantarillado, así como la facultad sancionadora de las infracciones que se produzcan, incluida la clausura, en su caso, de vertidos abusivos, o el cese de servicio de suministro de agua correspondiente.

- **Bezeroekiko harremanak.** BBUPren eskumenekoak dira Partzuergoko udalerri guztietako bezeroekiko harremanak –lehen mailako zein bigarren mailako sarearenak–; halakotzat hartzen dira neurketa ekipoen kontrola, zerbitzuen kontratazioa, kontsumoen kontrola, horien fakturazioa eta diru bilketako kudeaketa, erreklamazioen ebazpena eta jarduera horren ondoriozko isunak ezartzeko ahalmena.

Udalerrien eskura dagoen zerbitzu aukera zabaltzeko helburuaz, BBUPk **UDAL SAREAK, S.A**. sozietate publikoa eratu du, bera izanik akziodun bakarra. Sozietate horren zeregin nagusia edateko uraren banaketa kudeatzea da, dagokion hitzarmena izenpetu ondoren, BBUPri hala agindu dioten 64 udalerrietan. Zehazki, honako lan hauek egiten ditu:

- Edateko ura banatzeko sistemaren ustiapena.
- Udalei laguntza teknikoa ematea, hitzartutako Sareak Birjartzeko Plana gauzatzea sartzearen unean.

Jarduera horiek garatzeko, instalazioak kudeatu ez ezik, BBUPk **proiektuak** eta **lanak** ere gauzatu egiten ditu saneamenduko eta hornikuntzako azpiegitura hidraulikoak eraikitzeko edota berritzeko, besteak beste helburu hauekin: gaur egungo sareak zabaldu, arazketa prozesuen ahalmena eta eraginkortasuna handitu, eta, azken batean, ematen den zerbitzuaren kalitatea hobetzea. Ildo horretan,azpimarratu beharra dago diseinu fasearen garrantzia, instalazio jakin batek bere bizitza zikloan zehar duen ingurumenarekiko jokabideari dagokionez.

Beraz, labur esanda, BBUPren ardura honako hau da: bere lurralde eremuko hornikuntza eta saneamenduko azpiegitura nagusien bizitza zikloa osorik kudeatzea, ondoko grafikoan ageri den bezala.

- **Relaciones con clientes**. Son competencia del CABB las relaciones con los clientes, tanto en red primaria como en red secundaria, de todos los municipios consorciados, entendiendo por tal el control de los equipos de medida, la contratación de los servicios, el control de los consumos, su facturación y gestión recaudatoria, la resolución de reclamaciones, así como la potestad de imposición de sanciones derivadas de esta actividad.

Con el objetivo de ampliar la gama de servicios a disposición de los distintos municipios, el CABB constituye como único accionista la Sociedad Pública **UDAL SAREAK, S.A**. Su actividad se centra en la gestión de la distribución del agua potable en los 64 municipios que así se lo han solicitado al CABB con la firma del correspondiente convenio. Los trabajos desarrollados comprenden:

- La explotación del sistema de distribución de agua potable
- La asistencia técnica a los ayuntamientos en la ejecución del Plan de Reposición de Redes al que se comprometen en el momento de su incorporación.

En el desarrollo de estas actividades, el CABB no solo opera estas instalaciones, sino que también elabora **proyectos** y ejecuta **obras** para la construcción y/o renovación de infraestructuras hidráulicas de saneamiento y abastecimiento, con el fin de extender las redes existentes, aumentar la capacidad y eficacia de los procesos de depuración y mejorar, en definitiva, la calidad del servicio prestado. En este sentido, es importante destacar la relevancia que tiene la fase de diseño en el comportamiento ambiental de una determinada instalación a lo largo de su ciclo de vida.

En definitiva, el CABB es responsable de gestionar el ciclo de vida completo de las principales infraestructuras de abastecimiento y saneamiento en su ámbito territorial, tal y como se refleja en el siguiente gráfico.

BBUPren jarduerako prozesu nagusiak • Procesos principales en la actividad del CABB



(1) **Itsasoko Lurreko Domeinu Publikoa** • Dominio Público Marítimo Terrestre

(2) **Domeinu Publiko Hidraulikoa** • Dominio Público Hidráulico

1.2 Antolamendu egitura
Estructura organizativa

Jarraian, BBUPren gaur egungo antolamendu egitura azaltzen da, gobernu organoak eta hartzen dituen alorrak zehaztuta.

A continuación se presenta la actual estructura organizativa del CABB, con presencia de los órganos de gobierno y las áreas que desarrolla.



1.3 Harremanak kideko beste erakunde batzuekin
Relación con otras organizaciones afines

BBUPk hasieratik ulertu eta indartu egin du uraren eta ingurumenaren alorrean duen erakunde mailako konpromisoaren garrantzia, bai Bilbo eta Bizkaiko ingurunean, bai estatu mailan eta nazioartean.

Alde batetik, BBUPk uraren egitura instituzionalaren sisteman parte hartzen du, bere eragin eremuaren barruan, hau da, **Kantauriko Konfederazio Hidrografikoan** eta **Ebroren Konfederazio Hidrografikoan.** Orobat, BBUPk **Zadorrako Mahaian** parte hartzen du; hots, Uraren Euskal Agentziaren (URA) zuzendari nagusiak zuzendutako erabiltzaile komunitatean. Bertan, inplikatutako erabiltzaileek parte hartzen dute, eta proposamenak egiten dizkiote Ebroren Konfederazio Hidrografikoaren Komisarioari.

Beste alde batetik, erakunde mailako konpromiso hori gauzatze aldera, **beste elkarte eta erakunde batzuekin batera** dihardu, ildo horretako nazioarteko ekimenetan parte hartzen du eta, azken batean, sarean lan egiten du, hiri uraren zikloaren eta ingurumenaren kudeaketa eraginkorra lortzeko. Besteak beste, erakunde hauek azpimarratu daitezke:

- AEAS: *Asociación Española de Abastecimientos de Agua y Saneamiento*, 330 bazkidek osatzen dute (estatuko enpresa eta eragile ia guztiak tartean), eta Espainiako elkarterik garrantzitsuena da, gaur egun, uraren ziklo osoaren kudeaketaren sektorean.

Desde sus inicios el CABB ha comprendido y reforzado la importancia de su compromiso institucional con el mundo del agua y del medio ambiente, tanto en el entorno de Bilbao y Bizkaia, como a nivel estatal e internacional.

Por un lado, el CABB participa en el sistema de articulación institucional del agua en su zona de influencia, tanto en la **Confederación Hidrográfica del Cantábrico**, como en la **Confederación Hidrográfica del Ebro**. El CABB participa también en la **Mesa del Zadorra**, una comunidad de usuarios dirigida por la Agencia Vasca del Agua (URA), en la que intervienen usuarios implicados y se formulan propuestas al Comisario de la Confederación Hidrográfica del Ebro.

Por otro lado, este compromiso institucional se materializa en el **trabajo conjunto con otras instituciones y asociaciones,** la participación en iniciativas internacionales relacionadas y, en definitiva, el trabajo en red en pos de una gestión eficiente del ciclo del agua urbana y del medio ambiente. Destacan entre ellas:

- AEAS: *La Asociación Española de Abastecimientos de Agua y Saneamiento*, formada en la actualidad por 330 asociados, entre los que se encuentran casi todas las empresas y agentes del Estado, constituye hoy día la asociación más importante del sector de gestión del ciclo integral del agua en España.

- EUREAU: *European Union of National Associations of Water Suppliers and Waste Water Services,* Elkarte horren barruan sektoreko 10.000 operadore baino gehiago daude, zeinen bitartez ur zerbitzu jasangarriak eskaintzen dizkien Europako 400 bat milioi herritarri.
- IWA: *International Water Association,* Elkarte hori erreferentziatzat jotzen da nazioartean, uraren sektorean. Kide- eta aditu-sare oso zabala du eta, horren bitartez, sektoreko profesionalei laguntzen die irtenbide berritzaileak, pragmatikoak eta jasangarriak sortzen, munduko premia eta erronka berriei aurre egiteko.
- Aclima: Euskadiko Ingurumenaren alorreko Industrien Kluster Elkarteak elkartzen ditu euskal ekoindustriaren eta ingurumenaren sektoreko erakundeen lehiakortasuna hobetzeko ekimenak egiten dituzten Euskal Herriaren eremuko enpresak eta erakundeak.

- EUREAU: *La European Union of National Associations of Water Suppliers and Waste Water Services* es la asociación que reúne a más de 10.000 operadores del sector, proporcionando servicios de agua sostenibles a alrededor de 400 millones de ciudadanos europeos.
- IWA: La *International Water Association* es considerada como punto de referencia a nivel mundial en el sector del agua. A través de su extensa red de miembros y expertos ayuda a profesionales del sector a crear soluciones innovadoras, pragmáticas y sostenibles para hacer frente a las nuevas necesidades y desafíos mundiales.
- Aclima: La *Asociación Cluster de Industrias de Medio Ambiente de Euskadi*, reúne empresas e instituciones en el ámbito del País Vasco cuya finalidad es la realización de acciones para la mejora de la competitividad de la ecoindustria vasca y entidades del sector ambiental.

1.4 Instalazioak eta ekoizpen prozesuak
Instalaciones y procesos productivos

BBUPk instalazio ugari ditu bere jarduera gauzatzeko; bi talde handitan banatu ohi dira horiek:

- **Hornikuntza sistemak**:osagai eta prozesu teknikoen multzo horrek bermatzen du ura kalitateari nahiz kantitateari dagokienez baldintza zuzenetan iristen dela hartzen den lekutik kontsumo punturaino.
- **Saneamendu sistemak**:kolektore eta arazketa unitateen multzoa dira, zeinak diseinatu egin diren ur masa hartzaileetara isurtzen den kutsadura karga ahalik eta gehien murrizteko asmoz. Beraz, ur masen egoera ekologikoa hobetzen laguntzen dute.

Hornikuntza sistemen jardunean, lehenik eta behin, gure ingurune geografikoan dauden **urtegietako, ibaietako eta lurpeko baliabideak biltzen dira.** Hain zuzen, BBUPk edangarri bihurtzen eta banatzen duen uraren % 90 Ullibarri Ganboa eta Santa Engrazia urtegietatik dator, Zadorra sistemari dagozkionak. Gainerako baliabideak bigarren mailako beste bilketa eremu batzuetatik hartzen dira, hala nola Artiba eta Nocedal urtegietatik –Cadaguaren sistemakoak– eta Durangaldeko Oiz mendiko lurpeko baliabideetatik.

Para el desarrollo de su actividad, el CABB dispone de un gran número de instalaciones que, habitualmente, se clasifican en dos grandes grupos:

- **Sistemas de abastecimiento:** son el conjunto de elementos y procesos técnicos que garantiza que el agua llegue desde el lugar de captación al punto de consumo en condiciones correctas, tanto en calidad, como en cantidad.
- **Sistemas de saneamiento:** formados por redes de colectores y unidades de depuración diseñados para reducir al máximo la carga contaminante vertida a las masas de agua receptoras, contribuyendo de esta forma a mejorar el estado ecológico

La operación de los sistemas de abastecimiento comienza con la **captación del agua** de los embalses, ríos y recursos subterráneos existentes en nuestra geografía. Así, el 90% del agua que el CABB potabiliza y distribuye procede de los embalses de Ullibarri Ganboa y Santa Engracia, pertenecientes al sistema del Zadorra. El resto del recurso procede de otras captaciones secundarias, como las de los embalses de Artiba y Nocedal, en el sistema Kadagua y los recursos subterráneos del monte Oiz en el Duranguesado, entre otros.

Bildutako ura **Edateko Uren Tratamendutegietara (EUT)** garraiatzen da hodi sare oso baten bitartez. Gaur egun, BBUPk 26 instalazio kudeatzen ditu, zeinetan 93,5 hm^3 ur gordin tratatu diren 2016. urtean, edateko ur bihurtzeko. Bolumen guztiaren % 82,5 baino pixka bat gehiago Beteluriko EUTn tratatu da. Horixe da instalazio nagusia, eta 7 m^3/s-ko tratamendu ahalmena dauka. Era horretara, instalazio horren azken lau urteetako ekoizpenak bilakaera hau izan du:

El agua captada es transportada hasta las **Estaciones de Tratamiento de Agua Potable (ETAP)** mediante una completa red de tuberías. El CABB gestiona actualmente un total de 26 plantas en las que durante 2016 se han tratado más de 93,5 hm^3 de agua bruta para su potabilización. Algo más del 82,5% del volumen total ha sido tratado en la ETAP de Venta Alta, que es la instalación principal con una capacidad de tratamiento de 7 m^3/s. Así, en esta instalación, la evolución de la producción en los últimos cuatro años ha sido la siguiente:



Ura edangarri bihurtzeko prozesuak apur bat aldatu daitezke tratamendu instalazioaren arabera. Adibidez, Beteluriko EUTren kasuan, prozesua klorazio bidezko tratamendu batekin hasten da, hura desinfektatu eta materia organikoaren zati bat oxidatzeko. Ondoren, dekantazio biltegietara igarotzen da. Han jalkitzen da, eta ezpurutasunak hondoan gelditzen dira, lohiak eratuz. Urari erreaktibo kimikoak (koagulatzaileak eta malutatzaileak) eransten zaizkionean, eragiketa bizkortu egiten da. Modu horretara, disolbatuta eta esekita dauden partikulak eransten dira. Horrela, koagulu astunak osatzen dira, eta dekantagailuen hondoan jalkitzen dira; beraz, ur garbia azalean gelditzen da.

Los procesos de potabilización pueden variar ligeramente en función de la planta de tratamiento. Por ejemplo, en el caso de la ETAP de Venta Alta, el proceso comienza con un tratamiento mediante cloración para su desinfección y oxidación de parte de la materia orgánica. Posteriormente, pasa a los depósitos de decantación donde reposa y se facilita que las impurezas se depositen en el fondo formando lodos. Esta operación se acelera al añadir al agua reactivos químicos (coagulantes y floculantes), que permiten la agregación de las partículas que se encuentran disueltas. De este modo, se forman pesados coágulos que se posan en el fondo de los decantadores, quedando el agua limpia en la superficie.

Beteluriko EUT, Arrigorriaga • ETAP de Venta Alta, Arrigorriaga



Beteluriko EUTko prozesu-diagrama • Diagrama de proceso de la ETAP de Venta Alta

Sedimentatutako lohia kendu, lehortu eta zabortegi kontrolatu batera eramaten da; dekantatutako ura, berriz, iragazki batzuetara garraiatzen da, non lodiera askotako harea geruzetan zehar igaroarazten den, eta partikula txikienak atxikita gelditzen dira. Ondoren, kloroa eransten zaio, banaketa prozesuan uraren edangarritasuna ziurtatze aldera; baita soda ere, pH-a doitzeko.

Uraren kalitate parametroak prozesu osoan zehar kontrolatzen dira: hasieran biltegietan biltzen denean, banaketa sareetan garraiatzen denean eta azken kontsumo puntuetan banatzen denean.

Ura edangarri egin ondoren, banatu egiten da, 600 kilometro baino hedadura handiagoko hodi sare zabal baten bitartez, 120 biltegi erregulatzaile eta bulkatzeko 75 ponpa dauzkana; horiei esker iristen da likidoa etxeetara, industrietara eta merkataritza establezimenduetara.

Erabili ostean, hondakin urak bildu eta araztu egiten dira, saneamendu sistemetan gertatzen diren hainbat prozesuren bitartez. Horretarako, 103 ponpatze estazio, 19 ekaitz tanga eta hondakin uren 29 araztegi (HUA) daude, zeinetan 125 hm3 hondakin ur baino gehiago tratatzen diren urtean. Azpiegitura horiek dira saneamendu sarea osatzen duten kolektore eta etengailuen 300 kilometrotik gorako eta udal estolderiaren ehunka kilometroen osagarri eta amaiera puntua.

2016an, BBUPko instalazioetan tratatu ziren hondakin uren bolumen osoaren % 85 inguru Galindoko HUAn araztu zen. Horixe da, hain zuzen ere, BBUPk kudeatzen dituen saneamendu sistemetako instalazio nagusia. Planta horretan, tratamendu biologikoak ezarri zaizkie ekitaldian jasotako uren % 87,13ri; era horretara, gai kutsatzaileen ezabatze mailak % 97tik gorakoak izan dira.

El lodo sedimentado se retira, se seca y se lleva a un vertedero controlado, mientras que el agua decantada se conduce a unos filtros, en donde pasa a través de sucesivas capas de arena de distinto grosor, que retienen las partículas más pequeñas. Posteriormente, se añade cloro para asegurar la potabilidad del agua durante el proceso de distribución, y sosa para ajustar el pH.

Los parámetros de calidad del agua se controlan a lo largo de todo el proceso, desde su origen en las captaciones hasta las redes de distribución, e incluso en los puntos de consumo final.

Una vez potabilizada el agua, se procede a su distribución mediante una extensa red de más de 600 kilómetros de tuberías, 120 depósitos reguladores y 75 bombeos de impulsión, que permiten que el líquido elemento llegue a los hogares, industrias y comercios.

Tras su utilización, se procede a la recogida y depuración de las aguas residuales, mediante una serie de procesos que tienen lugar en los sistemas de saneamiento. Para ello se dispone de 103 estaciones de bombeo, 19 tanques de tormenta, y 29 Estaciones de Depuración de Aguas Residuales (EDAR) que tratan al año más de 125 hm^3 de agua residual. Estas infraestructuras son el complemento y punto final de los más de 300 kilómetros de colectores e interceptores y los cientos de kilómetros de alcantarillado municipal que conforman la totalidad de las redes de saneamiento.

En 2016, en torno al 85% del volumen total de agua residual tratada en las instalaciones del CABB fue depurado en la EDAR de Galindo, que es la instalación principal de los sistemas de saneamiento gestionados por el CABB. En esta planta, el 87,13% de las aguas recibidas en dicho ejercicio han sido sometidas a tratamiento biológico, alcanzándose unos niveles de eliminación de contaminantes superiores al 97%.


Galindoko HUAn tratatutako emariak / Caudales tratados en la EDAR de Galindo
140
120
100
80
60
40
20
0
Hm3
123,32
102,96
105,72
105,22
108,55
95,24
96,17
91,68
2013
2014
2015
2016
Emari influentea
Caudal influente
Biologikoan tratatutako emaria
Caudal tratado en biológico


Galindoko HUAn ezabatutako kutsadura / Contaminación eliminada en la EDAR de Galindo (2016)
Ezabatutako % de eliminación
100%
90%
80%
70%
60%
50%
40%
30%
20%
10%
0%
97,0%
93,1%
97,3%
97,8%
SST
DQO
DBO5
N-NH3
SEG: Solido esekiak guztira
OEK: Oxigeno-eskari kimikoa
OEB5: Oxigeno-eskari biologikoa
N-NH3: Amoniako-nitrogenoa
SST: Solidos en suspensión totales
DQO: Demanda química de oxígeno
DBO5: Demanda biológica de oxígeno
N-NH3: Nitrógeno amoniacal

Hondakin urak arazteko prozesuak apur bat aldatu daitezke tratamendu instalazioaren arabera. **Galindoko HUA**ren kasuan, aurrena, hondakin solido handienak ezabatzen dira tratamenduan, hainbat tamainatako burdin sare eta baheen bitartez metatuta. Ondoren, tanga batera igarotzen da ura, non harea hondoan pilatzen den eta koipeak azalera ateratzen diren airea injektatu eta gero. Koipeak errasketen bidez baztertzen dira, eta hareak ponpaketa bitartez ateratzen dira.

Lehen mailako dekantazio tangetan, hondoan sedimentatzen da uretan eseki dagoen materia organikoa, eta lehen mailako lohiak eratzen dira. Tratamendu biologikoarekin jarraitzeko, dekantatutako ura banaketa ubide batera igarotzen da oxigenazio sistema baten bitartez, zeinak bakterioen garapena bultzatzen duen. Mikroorganismo horiek materia organikoaz elikatzen dira, hortaz, uretan disolbaturik dauden substantzia gehienak desagerrarazten dituzte eta bigarren mailako dekantazioan bereizten dira.

Arazketa prozesuaren bitartez lortutako ura Ballonti ibaira isurtzen da; halere, parte bati birsortzeko tratamendu bat aplikatzen zaio gero, hainbat jardueratan eta plantako prozesuetan berriro ere erabili ahal izateko.

Arazketa etapetan sortzen diren lohiei dagokienez, lehortu eta labe batzuetara eramaten dira, kontzentratzeko tratamendu bat eman ondoren, eta han, 850 gradu zentigradura errausten dira. Labeetako bero soberakina lurrina sortzeko baliatzen da; lurrin hori, berriz, bi turbinen bidez energia elektrikoa sortzeko erabiltzen da. Araztegiko instalazio batzuen premiak asetzeko erabiltzen da energia hori.

Lohiak errausteko prozesuan sortzen diren errekuntza gasei arazketa prozesu bat ezartzen zaie. Prozesu hori hiru etapa hauetan banatzen da: lehenengo fase lehorra, zeinetan partikula solidoak bereizten diren iragazki elektrostatiko baten bitartez; gasen garbiketa hezea, zeinetan konposatu azidoak neutralizatzen diren sodio hidroxidoko disoluzio bat lainoztatuta; eta, azkenik, mahuka

Los procesos de depuración de aguas residuales pueden variar ligeramente en función del tipo de instalación. En el caso de la **EDAR de Galindo**, el tratamiento se inicia eliminando los residuos sólidos de mayor tamaño, que son retenidos por medio de rejas y tamices de diferentes tamaños. A continuación, las aguas pasan a un tanque donde las arenas se acumulan en el fondo y las grasas se elevan a la superficie mediante la inyección de aire. Las grasas se retiran del agua mediante rasquetas y las arenas se extraen por bombeo.

Ya en los tanques de decantación primaria, la materia orgánica que se encuentra suspendida en el agua sedimenta en el fondo formando los fangos primarios. El agua decantada pasa a un canal de reparto para continuar con el tratamiento biológico, mediante un sistema de oxigenación que facilita el desarrollo de bacterias. Estos microorganismos se alimentan de materia orgánica por lo que hacen desaparecer la mayor parte de las sustancias disueltas en el agua y son retenidos en la decantación secundaria.

El agua obtenida tras el proceso de depuración se vierte al río Ballonti, si bien, una parte es sometida a un tratamiento posterior de regeneración para poder ser reutilizada en diferentes actividades y procesos de la propia planta.

Respecto a los fangos producidos en las diferentes etapas de depuración, tras un tratamiento para concentrarlos, se secan y transportan a unos hornos, donde son incinerados a 850 grados centígrados. El calor excedente de los hornos se aprovecha para producir vapor, que es utilizado para la generación de energía eléctrica mediante dos turbinas. Esta energía es empleada para abastecer las necesidades de parte de las instalaciones de la depuradora.

Los gases de combustión generados durante el proceso de incineración de los fangos, son sometidos a un proceso de depuración que consta de tres etapas: una primera fase seca

bidezko iragazketa, zeinak, ikatz aktiboa eta kare mikronizatua injektatzearekin batera, SO_2 edukia murriztea ahalbidetzen duen, bai eta metal astunak eta dioxinak ezabatzea ere. Amaierako isurketen kontrola egiteko, neurgailuak erabiltzen dira etenik gabe. Horien emaitzak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzan monitorizatzen dira, denbora errealean.

Azkenik, aipatu behar da usainak sortzen direla hondakin uretan eta horien tratamenduaren ondoriozko lohietan dagoen materia organiko biodegradagarriak ezabatzean, eta horrek eragozpenak sor ditzakeela saneamendu instalazioen inguruetan. Hartara, BBUPk usainak erauzi eta tratatzeko sistemak ezarri ditu ponpa eta araztegi gehienetan: karbono aktiboko iragazkiak, garbiketa dorreak edota bioiragazkiak, inguruneareKiko inpaktua murrizteko.

mediante un precipitador electrostático para la retención de partículas sólidas; un lavado húmedo de gases con pulverización de una solución de hidróxido sódico para neutralizar los compuestos ácidos; y, finalmente, un filtro de mangas que, junto con la inyección de carbón activo y cal micronizada, posibilita reducir el contenido de SO_2 y eliminar los metales pesados y las dioxinas. El control de las emisiones finales se hace mediante medidores en continuo, siendo sus resultados monitorizados en tiempo real por la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

Por último, cabe mencionar que la eliminación de la materia orgánica biodegradable presente en las aguas residuales y en los fangos derivados de su tratamiento, genera emisiones de olor que pueden causar molestias en los alrededores de las instalaciones de saneamiento. Por ello, el CABB dispone en gran parte de sus bombeos y depuradoras de sistemas de extracción y tratamiento de olores, consistentes en filtros de carbón activo, torres de lavado y/o biofiltros que permiten reducir el impacto asociado en el entorno.

Galindoko HUA, Sestao • EDAR de Galindo, Sestao



Galindoko HUAko prozesu-diagrama • Diagrama de proceso de la EDAR de Galindo

1.5 Ingurumen kudeaketaren sistema
Sistema de gestión ambiental

BBUPren Zuzendaritzak, bere instalazioetako jarduerak jasangarritasuna kontuan hartuta egiten direla eta ingurumena babesteko helburua betetzen dela ziurtatzeko asmoz, Ingurumen Kudeaketako Sistema (IKS) bat bultzatu eta ezarri du 2009. urteaz geroztik, UNE-EN-ISO-14001:2004 arauaren eskakizunak betetzen dituena.

Ziurtagiri horrek honako jarduera hauek hartzen ditu barne:

a) Saneamenduko eta hornikuntzako azpiegitura hidraulikoen eraikuntza diseinatzea eta kudeatzea,

b) Saneamenduko sistema orokorrak ustiatzea eta mantentze lanak egitea,

c) Hornikuntzako sistema orokorrak ustiatzea eta mantentze lanak egitea,

Jarduerok leku hauetan gauzatzen dira::

1.- Done Bikendi kalea, 8 – Albia eraikina. 48001 – Bilbao (Bizkaia)

2.-Galindo HUA, Vega Nueva kalea, z/g. 48910 – Sestao (Bizkaia)

3.- Beteluriko EUT, Buia-Arrigorriaga errepidea, z/g. 48480 – Arrigorriaga (Bizkaia)

Egun, BBGP bere IKS 2015eko UNE-EN-ISO-14001 arauaren bertsio berrira egokitzeko prozesuan dago, eta asmoa dauka horri dagokion auditorian lortzea; 2018ko udaberrian egingo da.

La Dirección del CABB, en su voluntad de asegurar que las actividades desarrolladas en sus instalaciones se realicen en clave de sostenibilidad y con el objetivo de proteger el medio ambiente, ha promovido y desarrollado desde 2009 la implantación de un Sistema de Gestión Ambiental (SGA), que satisface los requerimientos de la norma UNE-EN-ISO-14001:2004.

El alcance del certificado incluye las actividades de:

a) Diseño y gestión de la construcción de infraestructuras hidráulicas de saneamiento y abastecimiento,

b) Explotación y mantenimiento de los sistemas generales de saneamiento,

c) Explotación y mantenimiento de los sistemas generales de abastecimiento,

que se realizan en:

1.- c/ San Vicente, 8 – Edificio Albia. 48001 – Bilbao (Bizkaia)

2.- EDAR Galindo, c/ Vega Nueva, s/n. 48910 – Sestao (Bizkaia)

3.- ETAP Venta Alta, Ctra. Buia-Arrigorriaga, s/n. 48480 – Arrigorriaga (Bizkaia)

Actualmente, el CABB se encuentra en pleno proceso de adaptación de su SGA a la nueva versión de la norma UNE-EN-ISO-14001 de 2015, proceso que espera poder completar con éxito en la correspondiente auditoría de certificación que se llevará a cabo en la primavera de 2018.

IKSren funtsezko oinarri gisa, BBUPren Zuzendaritzak gainerako langileekin batera garatu eta egokitu egin du bere ingurumen politika. Politika horrek ingurumenaren alorrean etengabeko hobekuntza lortzeko erakundeak bete nahi dituen konpromisoak eta helburuak biltzen ditu.

Como pilar fundamental del SGA la Dirección del CABB ha desarrollado y adoptado junto con el resto de empleados su política ambiental. Esta política contiene los compromisos y objetivos que persigue la organización para conseguir una mejora continua en materia de medio ambiente.

Ingurumen politika

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren egiteko nagusia partzuergoratutako udalen lurralde-eremuan ur hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematea da.

Partzuergoak, iraunkortasun eta bikaintasun printzipioei jarraiki, uste du alde batera utzi ezinezko betebeharra dela bere jardueraren ingurumen alderdiak kudeatzea, aplikagarriak diren nazioarteko irizpideekin bat etorriko den eta erakundearen prozesu guztietara iritsiko den kudeaketa sistema baten bitartez. Horretarako, jarraian adieraziko diren konpromisoak garatzen dituzten ingurumen arloko helburuak eta xedeak ezartzen ditu:

1. **Indarrean dagoen ingurumen arloko legeria aplikagarria betetzea, bai eta bere gain hartzen dituen beste era bateko ingurumen-betebeharrak ere.**

